**JOSU IÑAKI ERCORECA GERVASIO**, CONSEJERO DE ADMINISTRACIÓN PÚBLICA Y JUSTICIA Y **SECRETARIO DEL GOBIERNO VASCO**

**JOSU IÑAKI ERCORECA GERVASIO JAUNAK, EUSKO JAURLARITZAKO IDAZKARIA** ETA HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIAKO SAILBURUAK

## CERTIFICO:

## EGIAZTATZEN DUT:

Que el Gobierno Vasco, en sesión celebrada el día 28 de octubre de 2014 adoptó, entre otros, el siguiente Acuerdo:

Eusko Jaurlaritzak, 2014ko urriaren 28an egindako bilkuran erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**ACUERDO POR EL QUE SE APRUEBA EL III PLAN JOVEN DEL GOBIERNO VASCO 2014-2016. (EXP. 2014/00832) (A/20140249)**

**EUSKO JAURLARITZAREN III. GAZTE PLANA, 2014-2016 ALDIKOA, ONARTZEKO ERABAKIA. (EXP. 2014/00832) (A/20140249)**

En el "*Marco general del III Plan Joven de Euskadi 2020. La estrategia vasca en materia de juventud*", aprobado por el Consejo de Gobierno el día 12 de junio de 2012, en el que se recogen, de forma coordinada y global, las líneas de intervención y directrices que deben orientar la actividad de las administraciones públicas vascas en materia de juventud a medio plazo, se dispone que:

Gobernu Kontseiluak, 2012ko ekainaren 12an, *Euskadi 2020ko III. Gazte Planaren esparru orokorra. Gazteriaren euskal estrategia* onartu zuen. Bertan, euskal administrazio publikoek epe ertainean gazteriaren arloan jarduteko jarraibideak eta esku hartzeko gidalerroak jasotzen dira, era koordinatuan eta orokorrean. Estrategia horrek honakoa xedatzen du:

- "*En desarrollo de las mencionadas líneas de intervención y directrices, cada administración pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi garantizará en su ámbito territorial una adecuada planificación en materia de juventud para el periodo que corresponda a cada legislatura y lo evaluará según los criterios que reglamentariamente se establezcan*".

- «Aipatutako esku-hartze gidalerroak eta jarraibideak garatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publiko bakoitzak gazteria-arlorako plangintza egokia bermatu beharko du bere lurralde-esparruan, dagokion legegintzaldiak iraun artean, eta erregelamenduz ezarritako irizpideen arabera ebaluatuko du».

Nahi izanez gero, J0D0Z-T0F7N-6W2Q bilagailua erabilita, dokumentu hau egiazkoa den ala ez jakin liteke egoitza elektroniko honetan: http://euskadi.net/lokalizatzailea
La autenticidad de este documento puede ser contrastada mediante el localizador J0D0Z-T0F7N-6W2Q en la sede electronica http://euskadi.net/localizador

Donostia - San Sebastian, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ
tef. 945 01 86 18 – Fax 945 01 87 01

- "*Cada administración pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi, en ejecución de sus competencias de autoorganización, garantizará la coordinación interdepartamental dentro de su administración para la elaboración de la programación y la evaluación de la correspondiente política integral de juventud*".

- «Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publiko bakoitzak, bere burua antolatzeko eskumenak betez, bere administrazioko sailen arteko koordinazioa bermatuko du, gazteriako politika integralaren programazioa eta ebaluazioa egiteko».

En consecuencia, a partir de un diagnóstico previamente contrastado con las instituciones, los agentes sociales y jóvenes durante la elaboración del citado Marco General, según el proceso de participación llevado a cabo para ello, ahora se concretan las prioridades del Gobierno Vasco en materia de juventud para el periodo 2014-2016.

Aipaturiko esparru orokorrean jasota dagoen prozedurari jarraiki, instituzioen, gizarte-erakundeen eta gazteen ikuspegiak jaso genituen, bai eta diagnostiko bat egin ere; bada, diagnostiko horren edukian oinarrituz, Eusko Jaurlaritzak gazteriaren arloan 2014-2016 aldian izango dituen lehentasunak zehaztu ditugu.

Además, este III Plan Joven del Gobierno Vasco mantiene las principales características de los planes jóvenes anteriores, como es su carácter integral, transversal, interdepartamental y abierto a la participación social.

Eusko Jaurlaritzaren III. Gazte Planak aurreko gazte-planen ezaugarri nagusiei eutsi die; izan ere, integrala, transbertsala, sailen artekoa eta parte-hartze sozialari irekia da.

En su virtud, a propuesta de la Consejera de Educación, Política Lingüística y Cultura, el Consejo de Gobierno adopta el siguiente

Horri jarraiki, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuak honako proposamena helarazi dio Gobernu Kontseiluari:

ACUERDO:

ERABAKIA:

"<u>Primero</u>.- Aprobar el "III Plan Joven del Gobierno Vasco 2014-2016", que figura como Anexo al presente Acuerdo, como instrumento que recoge de forma coordinada y global los compromisos del Gobierno Vasco en materia de juventud para la presente legislatura.

"<u>Lehena</u>.- Eusko Jaurlaritzaren III. Gazte Plana onartu da, 2014-2016 aldikoa, eranskinean jasota dagoena. Plan horrek era koordinatu eta orokorrean jasotzen ditu Eusko Jaurlaritzak gazteria-arloan legegintzaldi honetarako hartutako konpromisoak.

<u>Segundo</u>.- Dentro del primer semestre de cada uno de los ejercicios a los que se extiende el III Plan Joven, el Departamento de Educación, Política Lingüística y Cultura presentará al Consejo de Gobierno para su aprobación, el programa de acciones que vayan a ejecutarse durante ese ejercicio en su aplicación.

<u>Bigarrena</u>.- III. Gazte Planak iraungo duen ekitaldi bakoitzeko lehen seihilekoan, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak, plana aplikatzea dela eta, ekitaldi horretan gauzatu diren ekintzen programa aurkeztuko dio Gobernu Kontseiluari, onar dezan.

El programa de acciones contendrá, además de un listado de actividades, los órganos encargados de llevarlas a cabo, la financiación prevista, que deberá atender a

Gazte Planaren ekintza-programan hauek adierazi beharko dira: jarduerak, horiek gauzatzeaz arduratuko diren erakundeak, aurreikusitako finantzazioa (aurrekontu

Nahi izanez gero, J0D0Z-T0F7N-6W2Q bilagailua erabilita, dokumentu hau egiazkoa den ala ez jakin liteke egoitza elektroniko honetan: http://euskadi.net/lokalizatzailea
La autenticidad de este documento puede ser contrastada mediante el localizador J0D0Z-T0F7N-6W2Q en la sede electronica http://euskadi.net/localizador

las disponibilidades presupuestarias y a los criterios de presupuestación correspondientes, los objetivos del Plan Joven a los que sirve, las personas o entidades destinatarias, así como los indicadores que permitan evaluar la acción. Además, en la financiación deberá constar la identificación de los programas, así como las partidas afectadas.

Tercero.- Una vez finalizado cada uno de los ejercicios a los que se extiende el III Plan Joven, el Departamento de Educación, Política Lingüística y Cultura presentará al Consejo de Gobierno un informe de seguimiento de ese ejercicio.

En ese informe se indicarán las acciones llevadas a cabo por los Departamentos competentes en cada materia, identificándose aquéllas previstas en el III Plan Joven, y aquéllas que tienen encaje en algunas de las líneas de intervención del III Plan Joven aunque no estén expresamente previstas en éste, señalando en ambos casos los objetivos llamados a cumplir.

Cuarto.- La coordinación interdepartamental del III Plan Joven del Gobierno Vasco será ejercida por las personas nombradas para su participación en la Junta Rectora de Plan Joven por cada consejero o consejera.

Quinto.- El Departamento de Educación, Política Lingüística y Cultura, a través de su Dirección de Juventud y Deportes, realizará las funciones de recogida y análisis de la información necesaria para poder dar cumplimiento a las previsiones del presente Acuerdo. A tal efecto, los departamentos del Gobierno Vasco le prestarán el apoyo que en cada caso requiera".

**ANEXO**

**III PLAN JOVEN DEL GOBIERNO VASCO 2014-2016.**

Y para que así conste y surta los efectos oportunos, expido la presente certificación en Vitoria-Gasteiz, a 4 de noviembre de 2014.

erabilgarrien araberakoa izan beharko du, eta dagozkion aurrekontu-irizpideak bete beharko ditu), helburuak, jardueren helburuko taldeak edo erakundeak eta ekintzak ebaluatzeko adierazleak. Gainera, finantzaketan programen identifikazioa adierazi beharko da, eragindako kontu-sailez gain.

Hirugarrena.- III. Gazte Planak iraungo duen ekitaldi bakoitza amaitutakoan, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak ekitaldiko segimendu-txostena aurkeztuko dio Gobernu Kontseiluari.

Txosten horretan, sail eskudunek aipatutako gaietan zer ekintza gauzatu dituzten adierazi behar da, eta III. Gazte Planean ezarritakoak identifikatzeaz gain, III. Gazte Planeko esku-hartze ildoekin zerikusia dutenak ere identifikatuko dituzte, nahiz eta horiek berariaz ezarrita ez egon. Halaber, kasua edozein dela, bete beharreko helburuak adierazi behar dituzte.

Laugarrena.- Eusko Jaurlaritzaren III. Gazte Planeko sailen arteko koordinazioaz sailburu bakoitzak Zuzendaritza Batzordeak parte hartzeko izendatutako kideak arduratuko dira.

Bosgarrena.- Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila arduratuko da, Gazteria eta Kirolen Zuzendaritzaren bidez, akordio honetan aurreikusitakoa betetzeko beharrezkoa den informazioa jasotzeaz eta aztertzeaz. Horretarako, aipatutako gaiez arduratzen diren Eusko Jaurlaritzaren sailek laguntza emango diote behar duen bakoitzean".

**ERANSKINA**

**EUSKO JAURLARITZAREN III. GAZTE PLANA, 2014-2016**

Eta horrela jasota gera dadin eta izan beharreko ondorioak izan ditzan, ziurtagiri hau ematen dut Vitoria-Gasteizen, 2014ko azaroaren 4an.

Nahi izanez gero, J0D0Z-T0F7N-6W2Q bilagailua erabilita, dokumentu hau egiazkoa den ala ez jakin liteke egoitza elektroniko honetan: http://euskadi.net/lokalizatzailea
La autenticidad de este documento puede ser contrastada mediante el localizador J0D0Z-T0F7N-6W2Q en la sede electronica http://euskadi.net/localizador
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO